

## BALIO PROPOSAMENAK

Gure produktua txirrindularitza talde zein txirrindulari partikularra den eta lasterketa aurreko beroketa bat egin nahi duen edozeinek erosi ahalko du. Horretaz gain, txirrindulari hasi berriek ere teknika arazoak balituzte arrabola erabilia bizikleta gainean oreka hobetzea lortuko lukete.

Gure produktuaren berezitasuna Euskal Herrian egindako produktu bat dela da hasteko baina gainera, beste arrabolekiko duen ezberdintasun nagusia, albo batera edo zutik gordetzeko aukera ematen duela da.

Konpetentziari erosi beharrean produktua guri erosteko arrazoi nagusia, Euskal Herrian produzituriko produktua izateaz gain, gizarte erantzunkizun korporatiboa errespetatzen duen produktua da. Fabrikazio prozesuan mekanizazio material berrerabiliak erabiliz.

Enpresaren helburu bat etorkizunera begiratzuz, beste arrabola mota batzuk egitea litzateke. Arrabola mugigarriak egiten ditugularik, arrabola fijo edo ez mugigarriak egitea litzateke helburu bat.

